



2010-01-19

Disimuluz eta ageriko

Igor Estankona, Edorta Jimenez eta Josune Muñozek 1968tik 2008ra arteko euskal poesia erotikoaren antologia apailatu dute

Zenbait idazle «ahazmenetik berreskuratu» eta «topikoen aurkako liburua» osatu dute

IRUNE BERRO.

Bilbo

Erakutsiz batzuetan; ezkutatuz besteetan; disimuluz hainbatetan. Euskal poesiak erotismoa ukitu du sarri askotan. Zenbaitetan osoki bildu da erotismora, eta jarraituki, arrasetik pasatu da. *Desira plazer 68-08* liburuan erakusten denez, euskal poesiaren mapan tarte aipagarria bete du erotismoak, urteetan aurrera ibilbide esanguratsua eginez, estilo eta moldez joria. 1968tik 2008ra arte euskal idazleek sorturiko poemak arakatu dituzte Igor Estankonak, Edorta Jimenezek eta Josune Muñozek, ale erotikoen bila. Aurkituriko altxorrekin guztiekin, euskal poesia erotikoen antologia osatu dute, lan kronologikoa. Txalapartak eman du argitara *Desira plazer 68-08* deritzon liburua, Literotura sailean.

Idazle andanaren poemak bildu dituzte: Joxe Azurmendi, Tere Irastortza, Josu Landa, Itxaro Borda, Paddy Rekalde, Iñigo Aranbarri, Jose Luis Otamendi, Sonia Gonzalez, Ines Goikoetxea, Joseba Sarrionandia, Anjel Erro, Pako Aristi, Pili Kaltzada, Miren Agur Meabe... Jon Miranderen *Oianone* poemarekin eman diote hasiera antologiari. 1953koa izanagatik, 1972an argitaratu baitzen. «Horregatik ez ezik omen egin nahi diogulako ere bai», idatzi du Jimenezek hitzaurrean.

Agerikoa denez, ahots arras desberdinek dute oihartzuna *Desira plazer 68-08* liburuan. Aniztasun hori aintzat hartuz egin dute hautaketa, Estankonak azaldu duenez. «Amaia Lasaren ahots xalotik, Omar Nabarroren bulkada indartsuraino, Xabier Montoiaren zinismoa eta Xabier Leteren mistizismoa tarteko». Dioenez, «euskal poesiak 40 urtean egin duen ibilbidea erakustea da liburuaren asmoa, ez erotismoaren definizio bat ezartzea».

Izan ere, erotismoa konprenitzeko eta jorrazteko modu ugari daude, elkarren artean oso desberdinak. 80 idazle ingururen obrak jaso dituzte antologian, horietako asko emakumeen lanak dira. Muñozek hartu du bere gain horiek hautatzeko ardura. Literatura ikerlariak salatu duenez, «badira oraindik emakumeen lanak aintzat hartzen ez dituzten antologiak».

Euskarazko poesia bainoago, beste herrialde batzuetako emakumeen poesia aztertua zuen Muñozek. Eta, dioenez, poesia horietan guztietan emakumezko idazleak «erotismoaz aritzean sexuaz ari dira, edo sexu ekintzara arteko bideaz». «Banituen susmoak: hemengo poesian ere hala izango zela imajinatzen nuen, eta bai, hala da euskarazko poesian ere bai».

Isilarazitako ahotsak

Zertan bereizten dira emakumeen eta gizonen poema erotikok? Zer dute desberdin batzuek eta besteek? Muñozen aburuz, «emakumeek garrantzi handiagoa ematen diote girotzeari, gorputzei eta harremanei». Horrenbestez, zentzumenek toki handia dute beren poemetan: «ukimenak, usaimenak, dastamenak...».

Antologia eratzeke irizpideak eztabaidatzean malgutasunez jokatzeari erabaki zuten Estankonak, Jimenezek eta Muñozek. Bereziki emakumeen poesiari zegokionez. Izan ere, ikerketa egitean gizonetzko idazle ezezagunekin ustekabea hartu badute, are ezusteko gehiago izan dituzte emakumezkoekin. Alegia, idazle asko ez zituzten ezagutzen ere, «sariketak irabazi eta liburuak argitaratu arren, isiltasunaren hilobian bizi baitira».

Hortaz, emakumeen ahots erotikoen bila aldizkarietara eta bildumetara ere jotzea adostu zuten apailatzaileek. Helburua: ahots horiek ahazmenetik ateratzea. «Isilarazitako mintzo ozenak» berreskuratzearekin bat, zabalpena, ezagutza eta errekonozimendua etor daitezkeelakoan.

Jimenezentzat «harrigarria da zenbat emakumeren lanak dauden isilarazita». «Zergatik daude zokoratuta?», galdetu du idazleak erantzunen bila, «zergatik ez dira ohiko bide arruntetatik plazara iritsi? Nork geldiarazi ditu?».

Alde horretatik, *Desira plazer 68-08* liburua «gure sistemari eginiko kritika» dela nabarmendu du Jimenezek, «autokritika da». Halaber, topikoen aurka eginiko liburua dela azaldu du idazleak. «Euskal literaturan ez omen dugu erotismoa landu...».

«Euskarazko poesian erotismoak zer-nolako itzala izan du azken 40 urteetan?», egin die galdera kazetariak. Mikel Soto Txalapartako editoreak azaldu duenez, «antologian badira poesia liburu handietatik harturiko aleak, baina badira hutsuneak ere. Esate baterako, [Juan Mari] Lekuona eta [Bernardo] Atxaga ez daude hemen eta beraien poesia garrantzitsua da. Erotismoak euskal poesian presentzia konstante eta esanguratsua izan arren, badaude hutsuneak». Alegia, euskarazko letren garapenean mugarri izan diren zenbait libururen egileek ez dute erotismoa inoiz jorratu. Estankonaren ustez, poesia erotikoa ezin daiteke euskal poesiaren azpigenerotzat hartu. «Ez du ematen horretarako, han-hemenka aurkituriko aleak dira antologian bildurikoak». Alabaina, Jimenezen iritziz, «gaur egungo euskal poeten lan gehienetan agertzen da erotismoa, nola edo hala».

Euskal narratiban bainoago, poesian loratu da erotismoa, *Desira plazer 68-08* liburuaren egileen aburuz. Sotori «deigarria» iruditzen zaio «zenbat narratiba idazle asexuatu dauden euskal literaturan. Beren liburuetan -500 orrialdekoak izanagatik ere- ez dago ez sexurik ez desirarik. Atentzioa ematen dit, bizitzari erreparatzen diodanean jabetzen bainaiz sexuak edota desioak mugiturik jokatzen dugula hein handi batean».